2009/2010

Jarduera eta Tailerrak

El Pobaleko Burdinola

Burdin tailerra



Norentzat: L.H.-ko 3.zikloa, DBH eta Batxilergoa.
Iraupena: bisita gidatua + tailerra = 2 ordu.
Edukia: lehenik, power-point dela bitarte, mineral eta burdinaren ezaugarrien gaineko azalpena ematen da, gero, tailer honexetarako berariaz hornituriko sutegi txiki batean, ikasleek askotariko forja-lan samurrak (bihurtze, zerratze edota karrakatzea) egiten dituzte.

Zuhaitzak nagusi



Norentzat: L.H.-ko 2. eta 3. zikloak.
Iraupena: bisita gidatua + tailerra = 2 ordu.
Edukia: lursailean zehar, urtegiraino doan ibilbideaz baliaturik museoaren paisaia-ingurunea ezagutaraztea da helburua, horretarako zuhaitz esanguratsuen ondoan geldialdiak eginez, hauexetako batzuek burdingintzarekin zerikusi nabarmena izan zutelarik.

El Pobaleko burdinolan, bisita guztiak gidatuak dira (euskara, gaztelania eta ingelera). Harri-hauspoak eragiten dituen gurpil hidraulikoak, burdina beroezen duten labeetako suak eta, irin-errotak, ablan dagoela, geure museoari bizia ematen diote bisitaldi bakoitzean.

Gida didaktikoak



Norentzat: L.H., DBH eta Batxilergoa.
Iraupena: bisita gidatua + tailerra = ordu eta erdi.
Edukia: ikasleek gida didaktiko bana jagun dutela, esku hartzen dute bisitaldian zehar museoaren edukiekin zerikusia duten fitxa ezberdinak betez.

Taloa / ogia egiten



Norentzat: L.H.
Iraupena: bisita gidatua + tailerra = 2 ordu.
Edukia: elikagai hauen historia eta birxikerien gainean pantaila handi batean proiektutako aurkezpen batekin hasten da bisitaldia. Ondoren, ikasle bakoitzak ogi ala talo bana egiten du, jarduera amaitutakoan dastatzeko aukera izango duelarik.



Ikasle guztiek, El Pobaleko sutegian oso didaktikoa den burdin erakustaldiaz gozatzeko parada izango dute.

NEW

Euskara landuz



Norentzat: Euskaltegiak, DBH eta Batxilergoa.
Iraupena: ordu eta erdi.
Edukia: bisitarako material osagarriak -hitzegia, literatura-pasarteak, atsotitzak...- edukiok ezagutarazi ez eze euskara iantzea ere ahalbidetzen du.

5 zentzumenak



Norentzat: H.H. eta L.H.-ko 1. zikloa.
Iraupena: ordubete.
Edukia: museoaren berezitasunak -sua, kea, makinen hotsa, irina, ura- diosku, txikienen adimena eragiteko, bisitaldia jolas antzera egin behar dela.

Olagizon-frogen jolasa



Norentzat: L.H.
Iraupena: bisita gidatua + jolasa = 2 ordu.
Edukia: bisita ostean, edukiak iantzeko, ikasleek galdera zenbaiti erantzun beharko diote, bai eta froga dibertigarri batzuk gainditu ere "olagizon" bihurtzeko.

Enkarterri Museoarekin bateragarria: DBH eta Batxilergoko ikasleentzako pentsatutako bisitaldia da, ikasturteko ostiraletan egiten delarik.



Harremanetarako:
El Pobaleko Burdinola
El Pobal auzoa z/g. 48550 Muskiz
Muskiz - Sopuerta errepidea
BI-2701 (23,5 km)
Telefonoa 629 27 15 16
www.bizkaia.net/elpobal
info@elpobal.com

Ordutegiak:
Apirilak 15 - Urriak 15: 10-14 eta 16-19
Igande eta jaiegunetan: 10-14
Urriak 16 - Apirilak 14: 10-14
Astelehenetan itxita

Eskola-tarifak:
Bisita gidatua: euro 1 ikasleko
Bisita gidatua + jarduera: 2 euro ikasleko
Irakasleria doan

